



ELKAREKIN
ERREAKZIOA
GARA
♀

A25
2017

Bortzakeria maxistaren
kontrako nazioarteko eguna



ERREAKZIOA
DEZAGUN!
PASA GAITEZEN
EKINTZETARA
EUREN BIOLENTZIAREN AURREAN
GUK AUTODEFENTSA



Lanaren
Konfederakunde
Nagusia
www.cgt-lkn.org
rojoynegro.info
@CGT



Manifestua: 2017ko azaroaren 25a. Bortizkeria Matxistaren Kontrako Nazioarteko Eguna
CGT-LKNTik munduko txoko guztietara zabalduko den oihu basatia egin nahi dugu.

Hainbesteko Bortizkeria Matxistak sumintzen gaitu. Bortizkeria Matxistaren edozein adierazpenari ez!

Aurten, Espainian, "patriarkatuaren seme garbiek" dozenaka emakume erahil dituzte. Milaka andre zein neskato bortxatu dituzte edo jazarpen sexuala jasan behar izan dute. Erasotzaile guzti-guztiak bai Erakunde Publikoek baita Komunikabideek seinalatzea nahi dugu gizarteari helarazte aldera:

Ez garela hiltzen!! Erahiltzen gaituzte!

Bien bitartean, Erakunde Publikoek ez diote, oraindik ere, bortizkeria matxistaren aurka borrokatzeko garatu beharreko aurrekontuari diru nahikorik ematen. Erakusten duten inobilismoak emakumeon kontrako Estatu bortizkeriari eusten dio, euren politika pribatizatzaileak, antisozialak eta desberdintasuna sustatzen duten neurriak aplikatzen dituztelako.

Ez dira nahikoa Estatu Itunaren aldarrikapenari buruzko gezur zuriak.

Boterearen menpe dauden komunikabideek egiturazko biolentzia matxista erreproduzitu besterik ez dute egiten, benetako kritikarik egin gabe. Normaltzen dute gauza bihurtzen gaituen sistema binario heteronormatiboa, gure gorputzak matxismoari eskaini eta objektu bihurtzen dituen; biktimatzat hartzen gaituzte, sumisoak eta patriarkatuaren lagun. **Dena den, errebelatzen gara, hitz egiten dugu, guretzat propio egiten ditugu diskurtsoak, geure buruaren irudiak aukeratzen ditugu, egiten dugun borroka goraipatzen dugu, proiektu autonomo eta autogestionatuak garatzen ditugu.**

Sistema patriarkalak emakumeak ebjektu erreproduzitzailerik behar gaitu eta langile merketzat hartzen gaituzte euren etekinak areagotzeko. Hori dela-eta, osasun sexuala eta haurdunaldiaren etenaldi boluntarioaren gaineko 2/2010 legeak ez du abortatzeko eskubidea bermatzen. **Libre, segurua, publikoa eta doakoa exijitzen dugu emakume guztiontzat**, adingabeko neskena barne. Utzizue, behingoz, adingabekoaren muga jaisteari, guk geuk gure gorputzen eta bizitzaren jabe izan ahal izateko.

Gure borrokek ekarri dizkiguten aurrerapenen aurrean, organizatuta dagoen matxismoaren erantzuna honakoa da: adingabekoen zaintzetarako itunak eta amatasun-aitatasun arduratsuen ordez, banatze eta dibortzio kasuetan zaintza partekatua inposatzen digute.

Gainera, epaitegietan erakundeek sutatzen duten emakumeenganako zein horien seme-alabenganako bortizkeria ere salatu nahi dugu, salatzen dituztenak zigortzen dituen.

Hala, ekonomia feministaren iraultzaren alde egiten dugu sutsuki, zeharkako hezkidetzak feminista, eta bortizkeria matxista erreproduzitu edota ikusezin bihurtuko ez duten bizitzaren arlo guztietako eredu-hezitzaileak. Eskatzen dugu, halaber, gure zergen dirua biolentzia erotik kenduko duen partidetarara bideratzea eta eragiten duena seinalatzera, eliza eta erakunde publiko guztiak barne. Gure burua aldarrikatzen dugu intsumiso, errebelde eta matxino!

Erreakziona dezagun! Pasa gaitezen ekintzetara! Euren biolentziaren aurrean, guk autodefentsa!